

Ebazpena: R065/2023

Espedientea: E17/2023

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

CACT jaunaren oinordekoek betearazte-intzidentea jarri dute, Asturiasko Printzerriak 73/2021 Gatazkaren harira emandako 36/2022 Ebazpena betearaztearen kontra. Intzidente hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 17/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

- 1.-** Kausatzailea 2017ko urtarrilaren 6an hil zen, eta Gasteizen (Araba) izan zuen egoitza 1998ko uztailaren 8tik aurrera.
- 2.-** Hil zen arte, kausatzaileak Arabako Foru Aldundian (aurrerantzean, AFA) bete zituen zerga-betebehar guztiak.
- 3.-** Hil zela eta, eta bat etorrita Ekonomia Itunaren 25.Bat.a) artikuluan xedatzen denarekin, oinordekoek oinordetzen gaineko zergaren autolikidazioa aurkeztu zuten AFAn.

4.- 2021eko ekainaren 15ean, Asturiasko Printzerriko Zerga Zerbitzuen Erakunde Publikoaren Ikuskapen Atalak oinordetzen gaineko zerga hori ikuskatzeko prozedura hasi zuen.

Hasieraren jakinarazpenean, honako dokumentazio hau aurkezteko betebeharra jasotzen zen:

a.- Hildakoaren, ezkontidearen eta oinordeko eta legatudun guztien NANen eta IFZen fotokopiak.

b.- Oinordekoen eta legatudunen adingabetasunaren justifikazioa, hala egokituz gero.

c.- Heriotza-ziurtagiria eta azken borondateen erregistroa.

d.- Testamentuaren kopia eta, bestela, oinordekoen deklarazioa.

e.- Kausatzaileak hil zenean zituen ondasun eta eskubide guztien zerrenda, haien balioa eta irabazpidezko ondasunen sozietatekoak ala pribatiboak ziren adierazita.

Zehazki, dokumentazio gehigarria eskatzen da aseguru-kontratuetarako, higiezineterako, ibilgailuetarako, bankuko kontuetarako eta finantza-aktiboetarako.

f.- Ehorzketa- eta hileta-gastuen jatorrizko ordainagiriak.

Dokumentazioa uztailaren 2an aurkeztu behar zen, 09:00etan, eta ohartarazi zuten hala egin ezean Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 203. artikuluan aipatzen den zehapena ezarri ahalko zela.

5.- 2021eko abuztuaren 19an, Asturiasko Printzerriak idazki bat bidali zion AFARI, kausatzaileak hil aurreko bost urteetan ohiko bizilekua Asturiasen izan zuela egiaztatzeko dokumentazio ugarirekin batera, eta inhibizio-errekerimendutzat jo zen, oinordetzen gaineko zerga ordainarazteko eskumenari dagokionez.

6.- AFAk bere eskumena isilbidez berretsi zuenez, Asturiasko Printzerriak 73/2021 Gatazka planteatu zuen 2021eko urriaren 14an, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

AFAk amore eman zuenez hasierako alegazioen izapidean, Arbitraje Batzordeak 36/2022 Ebazpena eman zuen, espedientea artxibatzea adierazteko, xedea gerora galtzeagatik.

Ebazpena irmoa da, ez delako inoiz errekurritu Auzitegi Gorenean.

7.- Asturiasko Printzerriak desadostasun-aktak abiatu zituen 2023ko martxoaren 28an, ez zegoelako oinordeekin ados, oinordetzen gaineko zergari zegokionez.

8.- 2023ko apirilaren 17an, CACT jaunaren oinordekoek BETEARAZTE-INTZIDENTEA planteatu zioten Arbitraje Batzordeari (17/2023 espedientezenbakia eman genion), ez zeudelako 36/2022 Ebazpenarekin ados, 2017ko oinordetzen gaineko zerga ikuskatzeko prozedura izapidetzeari zegokionez.

Gero, hainbat dokumentu aurkeztu zituzten (2021eko ekainaren 15eko hasierako jakinarazpena eta oinordetzen gaineko zergaren likidazioak), eman beharreko ebazpenean aintzat har zitezten.

9.- Betearazte-intzidentea Ekonomia Itunaren 68.Lau artikuluan jasotzen denarekin bat izapidetu da.

10.- 2023ko maiatzaren 24an, Asturiasko Printzerriko Zerga Zerbitzuen Erakunde Publikoko zuzendari nagusiak alegazio-idazkia aurkeztu zuen, likidazioak erantsita, betearazte-intzidentea artxiba zedin eskatzeko, uste zuelako 36/2022 Ebazpena bera bakarrik agortzen zela, 73/2021 gatazka artxibatzea erabakitzen zuelako.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du betearazte-intzidente hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 68.Lau artikuluan xedatutakoaren arabera. Honako hau ezartzen du artikulua horrek:

«Betearazte-intzidentearen bidez, ekonomia-itun honetan ezarritako Arbitraje Batzordearen prozedura batean alderdi izan denak Arbitraje Batzordearen ebazpena betearazteko neurriak eskatu ahalko ditu baldin eta ukitutako administrazioak ez badu ebazpena bere horretan betearazi».

2.- Asturiasko Printzerriaren alegazioak

Alegazio-idazkian, zehazten du espedientearen helburua ez dela kausatzailearen «egoitza fiskala» argitzea, baizik eta «ohiko bizilekua» argitzea, eta, hortaz, bere ustez, inola ere ezin daiteke aplikatu Zergei buruzko Lege Orokorrean erregulatzen den egiaztapen-prozedura, egoitza fiskalari buruzkoa.

Era berean argudiatu duenez, ez da egokia Ekonomia Itunaren 43.6 eta 43.9 artikuluetara jotzea, zergadunen egoitza fiskalaren inguruko desadostasunak ebazteko prozedurei buruzkoak direlako.

Ondorioz, bere iritziz, desadostasuna abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 32.2.a) artikuluekin bat ebatzi behar da (22/2009 Legea, abenduaren 18koa, araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien finantzaketa-sistema arautzekoa eta zenbait tributu-arau aldatzekoa).

3.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan xedatzen dena garatzeko, Ekonomia Itunak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren artean banatzen du zergak ordainarazteko eskumena, baita «kudeatzeko» behar diren eskumenak ere (*kudeaketa* terminoa zentzu zabalean hartuta, eta, beraz, kudeaketa, ikuskapena, berrikuspena eta bilketa barne hartuta), eta lurralde historikoetako eskudun erakundeei aukera ematen die, beren lurralde barruan, zerga-araubide propioa eduki, ezarri eta arautzeko, bat etorrita eskumen-banaketaren konstituzio- eta estutu-esparruekin eta, zehazki, Itunari buruzko Legean jasotzen diren irizpideekin.

Kausatzaileak 1998tik hil arte eduki zuenez egoitza fiskala Araban deklaraturik, benetako ohiko bizilekua edozein izanda ere, Ekonomia Itunaren babespean ondorioztatu behar da zerga ordainarazteko eskumenaren banaketa, 36/2022 Ebazpenean adierazi moduan. Gainera, eskumen hori eskatzeko prozedurak ere Ekonomia Itunean jasota egon behar du.

Amaitzeko, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea da ordainarazteko eskumenaren, egoitza fiskalaren eta administrazio jarduleak jarraitutako prozeduraren harira sor litezkeen desadostasunak ebazteko organoa.

Bada, bat etorrita eskumenak banatzeko konstituzio- eta estatutu-ordenarekin (zehazki, Ekonomia Itunarekin), Arbitraje Batzorde honek 73/2021 Gatazka izapidetu bitartean eduki izan balu betearazte-intzidente honetan ikusitako egitateen berri, 2021eko ekainaren 15eko hasierako jakinarazpenari dagokionez, erabateko deuseztapena ebatziko zukeen, BFAREN eskumenak inbaditzeagatik (Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikuluan eta 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikuluan xedatutakoa urratzeagatik) eta ezarritako prozeduraren arauak nabarmen urratzeagatik (izan ere, zergadun baten egoitza fiskala eta ohiko bizilekua bat ez badatoz, egoitza fiskala aldatzeko prozedura bideratu behar da, Ekonomia Itunaren 43. artikuluan esaten den bezala, zerga bat ordainarazteko eskumena hartzeari begira egiaztapen-prozedura bat hasi aurretik, hainbat administrazioaldi berean balia ez dezaten zergadun beraren gaineko eskumena), 11/2018 Ebazpenean (Auzitegi Gorenaren 2019ko uztailaren 10eko Epaiak berretsi zuen, ECLI:ES:TS:2019:2350) eta 12/2018 Ebazpenean (Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 16ko Epaiak berretsi zuen, ECLI:ES:TS:2019:3250) finkatutako doktrinari jarraikiz.

Eta hala izango zatekeen, AFAk amore emateak ere ez lukeelako asaldatuko ebazpenaren zentzua; izan ere, 12/2018 Ebazpenak adierazi bezala, «aipatutako gatazkaren ebazpenean azaltzen den ondorioa edozein izanik ere, baita onartuko balitz ere egoitza lurralde erkidean egon zela eratu zenetik, ez lirateke inola ere zuzenduko egindako akatsak, Ekonomia Itunaren 66.3 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera».

No puede permitirse el desconocimiento por la Junta Arbitral de la necesaria información para alcanzar las conclusiones anteriores, traslade al Tribunal Económico Administrativo de Asturias y, en su caso, al Tribunal Superior de Justicia de Asturias, el conocimiento de unas cuestiones que son competencia “exclusiva y excluyente” de aquélla y, en su caso, del Tribunal Supremo, alterando así la distribución de competencias prevista en el Concierto Económico.

Bestetik, betearazte-intzidentean ezin daitezke ebatzi epaian jorratu eta erabaki ez diren kontuak (Auzitegi Gorenaren 1998ko ekainaren 30eko autoa, ECLI:ES:TS:1998:1710A).

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea 36/2022 Ebazpena bera bakarrik agortzen dela, 73/2022 Gatazka artxibatzea erabakitzen duelako; hortaz, ezin da inolako erabakirik hartu ebazpena betetzeari dagokionez.

2.- Ebazpen hau jakinaraztea Asturiasko Printzerriari, Arabako Foru Aldundiari eta CACT JAUNAREN OINORDEKOEI.